

"Jolasaren pedagogia" ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2021eko formakuntza planeko beste ikastaro bat antolatu du


'**Jolasaren pedagogia**' ikastaroa antolatu du Gazteen Euskal Behatokiak apirilean. Formazio honen helburu nagusia izan da, pertsonak jarrera, balioen barneratzea eta hezkuntza-xede anitzak lortzeko tresna ludiko edota jolas-baliabideak lortzea, baita esperientziak diseinatzeko metodologiak eta mekanismoak ere ikastea.

Ikastaroa **Raúl García Piñeirok** eman du "Saco de Juegos"-en sortzailea. Esperientzia ludikoen diseinatzailea eta berrikuntza teknologikoan aholkularia.

12 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 50, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 30 hezkuntza aratuari lotutako lagunak izan dira.
- Azken % 20k bestelako profila zuten.

Ikastaroak 9 orduko iraupena izan du, bi egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta